



**2017KO MAIATZAREN SEKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren bostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2017ko apirilaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 36 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA SEI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (66.192,80 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- INPRIMAGAILUEN HORNIDURA KONTRATUA LUZATZEA.-

Udal honek, 2014ko ekainaren 20an egindako tokiko gobernu batzarraren bilkuran, eta Gipuzkoako Erosketen Zentralak egindako esleipenari jarraituz, inprimagailuen hornidura kontratua 2 urterako 2008 Maquelsako Gipuzkoa S.L.ri esleitzea erabaki zuen.

Gipuzkoako Erosketen Zentralak 2016ko maiatzean baimendu zuen esparru akordioaren lehen luzapena eta orain, kontratu horren 2. luzapena planteatzen da eta, dagokion izapideak egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatuak, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez inprimagailuen hornidura kontratatzeako Esparru Akordioa (X13014)" urte betez luzatzea baimentzea ebatzi du.

Guzti hau horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, udal honek 2008 Maquelsako Gipuzkoa S.L.rekin inprimagailuen hornidurarako daukan kontratua beste urte betez luzatzea ebatzen du.

IV.- HEZKUNTZA ETA EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskara eta hezkuntzako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioa hartzen du:

Lazkao Txiki Musika Eskola.-

2017ko martxoaren 22tik apirilaren 2ra antolatutako aste kulturalarengatik 4.734 €ko diru laguntza ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a horizontal line extending to the right.